

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA - 2022-2026

013012 IES Hernani BHI

2022-2026 epealdirako ikastetxe honek prestatu duen Hizkuntza Normalkuntzako Proiektu honek ikastetxearen Organo Gorenaren onospena duela aitortzen dut.

EREMUEN GAINEKO HAUSNARKETA

<p>Justifikazioa</p>	<p>Gure ikastetxea lan handia egiten ari da euskararen normalizazio-prozesuan. Jarduera eta ekintza ugari eta anitzak bideratzen ditu prozesu horretan. Hala ere, sarritan, zaila gertatzen da aurrerabideak eta lorpenak bistaratzea. Ez da erraza izaten ikustea zer puntutan gauden normalizazio ibilbide horretan, eta landu beharreko hurrengo urratsak zein izan behar dugun. Horregatik, beharrezko ikusten dugu ibilbide horretako fase edo urratsak identifikatzea, formulatzea eta hurrenkera ahalik eta zehatzena ematen saiatzea, mugarri izan daitezkeen adierazleak esparruz esparru finkatzea. Horrela, adierazleak aztertuz, gure ikastetxeak jakin dezake zer urratsetan edo fasetan dagoen. Adierazle sorta horren bidez, gure ibilbideko mugarriak kontrastatu ahal izango ditugu.</p> <p>Jakin badakigu esparru guztiak ez dutela pisu eta eragin-ahalmen bera normalizazio-prozesuan. Zenbait eragin-esparruk garrantzi handiagoa dute normalizazio-prozesuan. Funtsezkoa da horiek identifikatu eta ahalik eta etekin handieran ateratzen saiatzea. Hori horrela, ez da ahaztu behar eragin-esparru guztiak elkarreaginean lotuta daudela. Eragin-esparru batean eraginez, esparru horretan ez ezik, besteetan ere eragiten baita, zeharka bada ere.</p> <p>Hausnarketa honen bidez, gure ikastetxeak ikusi ahal izango du une horretan non dagoen, eta normalizazio-prozesuan aurrera egiteko zer egin beharko dugun. Jakin badakigu ingurune soziolinguistikoak sekulako eragina duela normalizazio-prozesuan, nahiz aldera jokaturata prozesua azkartuz, nahiz prozesua trabatu edota motelduz. Hausnarketa hau aurrera eramateko, IKASTETXEAREN NORMALIZAZIOAREN NORABIDEA EDO ERRUBRIKA erabiliiko dugu tresna gisa. Graduazioa da, normalizazio-prozesuaren garapenean, behe mailatik hasi eta goi mailako faseetara eramán gaitzakeen bidea, hain zuzen.</p> <p>Aipatuko diren adierazleak fase bakoitzeko mugarri izango dira. Tresna baliagarriak dira irudikatzen gure ikastetxearen prozesua zer unetan dagoen. Adierazle horiek esparruz esparru jarrita daudenez, gure ikastetxeak azter dezake esparru bakoitzaren garapen maila; era berean, ikusi ahal izango dugu esparruen garapen maila orekatua den ala haien artean desoreka handiak dauden. Batetik, unez uneko egoera diagnostikatzeko baliagarri izan dakiguke. Bestetik, aurrera begira hurrengo mugarriak zein diren ikus ditzakegu. Esparru bakoitzean 3 garapen maila berezita daude, erreferentziak ahalik eta argien izateko. Hori horrela, prozesuaren jarraipena egiteko GPS moduko zerbait egitea litzateke gure xedea.</p> <p>Lehen ere egin izan dira ahaleginak gure ikastetxean, norabidea eta lehentasunak adierazteko. Kasu honetan, haiek aintzat hartzeaz gain, beste erreferentzia bat ere hartuko dugu: Ulibarri programako IKASTETXEEN HIZKUNTZA NORMALIZAZIO PROIEKTUAK eratzeko dituzten esparruak.</p> <p>Adierazleaz ari garenean, lorpen-adierazleak eta prozesu-adierazleak bereizi behar ditugu. Lorpen-adierazleak zera erakusten ditu: ikastetxea lorpen horietara iritsi den ala ez. Prozesu-adierazleak, aldiz, zera dira, maila horretara iristeko eman behar diren urratsak eta ekimenak. Kasu honetan, guk proposatzen duguna da lorpen-adierazleak lantzea.</p> <p>Azkenik, esan dezagun norabideari dagokion hausnarketa hau lehen hurbilpena dela, osatu beharreko lehen markoa. Ibilian-ibilian osatu, egokitu eta zehaztu beharrekoa.</p> <p>Ikasturte hau izan da Hernani BHI osatu zenetik bigarren aldia Branka datuen alderaketa egitea posible duguna. Ondorengo ataletan zehaztuko ditugu eremu bakoitzean izandako aldaketak eta haien artean ateratako ondorioak.</p>
<p>Eremu Instituzionala</p>	<p>Eremu Instituzionalean orain dela lau urteko datuekin alderatuta datuak hobetu egin dira zertxobait, baina hobekuntza tarte oso murrizta zenez, aurreko emaitza onak eustea eta handitzea lortu da, kontuan izanda % 90 inguruko kopuruan gabiltzala.</p> <p>Aurreko Brankarekin alderatuta presentzia/ezagutzan (- 0,98) jeitsi egin da, eta erabilera (+ 2,50) igo egin da. Brankak aurreikusitako erabilera (+0,78), hau da, espero zitekeen erabilera bete da.</p> <p>Datuak datu, eta azken lau urteetan egindako lana kontuan izanda, emaitza baikorrak izan dira. Hala ere, ondorengo atalean zehaztuko ditugu eremu instituzionalean landu beharreko alderdiak.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Eskola Kontseiluari dagokionez, euskararen presentzia/ezagutza (-2,81) izan da orain dela lau urtekoekin alderatuta eta erabilera (-0,48) izan da. Baina kontuan izan behar dugu ehuneko oso altuetan gabiltzala presentzia/ezagutzan (%71-75) eta erabilera (% 99-100), beraz, hobekuntza tarte oso murrizta da. Atal hau hobetzekotan, Eskola Kontseilua euskararen normalizazioan eragilea eta Ulibarri proiektuaren arduradunetako bat bihurtzea litzateke.</p> <p>Zuzendaritza aldetik, euskararen presentzia/ezagutza (+0,35) izan da, eta erabilera (+2,00). Arestian aipatu bezala hobekuntza tarte oso murrizta da. Atal hau hobetzeko, zuzendaritzak izan beharko luke HNPren eragile aktiboa, eta honen motorra eta bultzatzaile nagusi bihurtu.</p> <p>Idatzizko erabilera (-1,63) izan da atzerapena. Aukera ematen da jakinarazpenak elebietan edota euskara hutsez jasotzeko. Atal honetan eguneroko jarraipena egitea funtsezkoa ikusten dugu ikastetxea osatzen dugun eragile guztion aldetik, eta hutsuneren bat izatekotan behar den tokian jakinaraztea, izan tutore, zuzendaritza, idazkaritza, HNAT...</p> <p>Kanpo harremanetan (+0,03) aldea izan da bai ahozko, bai idatzizko erabilera. Emaitza honen</p>

<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>justifikazioa izan daiteke, orain dela 4 urteko datuak eta aurtengoak erabat subjektiboak izan direla, eta ez daudela erabat oinarrituta datu objektiboetan. Beraz, datozen 4 urteetako helburua izan daiteke atal honetan eman beharreko datuak erabat objektiboak izateko neurriak hartzea.</p> <p>Bukatzeo, ikastetxeko hizkuntza paisaiari gagozkiorik emaitzak errepikatu dira, aurtengo datuak % 100 izanez. Datu hau neurri batean ez dago zuzen, zenbait gailu (su itzalgailluak, larrialdiko argiak...) eta administrazioetik iristen diren kartelak elebrietan baitaude. Beraz, pixkanaka ahalegindu beharko dugu hizkuntza paisaia erabat euskaraz izatea, datu hori baieztatuz ahal izateko. Atal honetan ordenagailuen interfazeak euskaraz izateko tartea sartuz gero, lan handia dugu egiteko oraindik, eta gure ehunekoa asko jaitsiko litzateke atal honetan.</p>
<p>Eskola kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilera</p>	<p>Aurreko Brankarekin alderatuta igo egin da euskararen presentzia/ezagutzan (+3,32) eta erabileran jaitsi (-0,49). Brankak aurreikusitako erabilerarekin alderatuta (+17,78), hau da, espero zitekeen erabilera baino askoz ere handiagoa izan da, hala ere aurreko Brankarekin alderatuta indize hau (-3,79) jaitsi egin da.</p> <p>Datuak datu, eta azken lau urteetan egindako lana kontuan izanda, emaitza baikorrak izan dira. Hala ere, ondorengo atalean zehaztuko ditugu landu beharreko alderdiak</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Ikasleen komunikazio gaitasunean hainbat maila daude haien artean. Ikasle askok ez dute zaitasunik euskaraz ohiko adierazpenetan, baina batzuek ez dute erraztasunik adierazteko esan nahi dutena eta tarteka gaztelaniaren beharra sumatzen zaie. Interakzio didaktikoari dagokionez, ikasle batzuek euren artean euskaraz egiten dute beti; beste batzuek, aldiz, irakasleen presentziarik gabe gaztelaniara jotzen dute; eta beste batzuek euren artean gaztelaniaz ari dira irakasleak aurrean izanda ere.</p> <p>Partaidetza eta inplikazioa dela eta, ikasleen euskara batzordea dinamiko eta iraunkorra dago, eta hauek arduratzen dira batzorde honetako erabaki eta ekintza guztien berri ematen. Bukatzeo, motibazio eta girotze aldetik, ikasleen artean makina bat maila daude haien artean. Batetik, euskaraz bizitzeko motibazio indartsua, euskararekiko jarrera positiboa eta euskarazko kultur egoizpenak ezagutzen dutenek; beste batetik, hainbat ikasle ez daude euskararen aldeko ekimenetan eragile izateko prest, baina bai ekintzetan parte hartzeko prest. Azkenik, ikasle gutxi batzuek ez dute jarrera positiboa euskararekiko, eta ez dute aparteko motibazioarik euskararekiko.</p> <p>Honetaz gain, lau urte hauetan ez da asko aldatu ikastetxearen egoera soziolinguistikoa, nahiz eta beti sumatu DBH 1. mailan ematen den ikasle-bateratzearen ondorioz kezka nagusia. Kontuan izan behar da ikasmaila horretan gure ikastetxera bost ikastetxetatik etorzen direla ikasleak (Elizatxo, Langile, Txirrita, Urumea eta Inmakuladatik bakan batzuk), ikastetxe bakoitzak errealitate soziolinguistikoa bat duela, eta horretaz gain ikasle bakoitzak duen etxeko testuinguru soziolinguistikoa desberdina dela; esan dezakegu Hizkuntza Normalkuntzaren helburu nagusietako bat izango dela DBH 1. eta 2. mailak indartzea euskararen presentzia, ezagutza eta erabilerari dagokionez.</p> <p>DBH 3 eta 4. maila dagokionez, aurretik finkatu eta adostutako planekin martxan jarraituko dugu, bakoitzaren adina eta eraikina kontuan izanik. DBH 3. mailako ikasleak Harrobi eraikinean izango dira, eta helburu nagusia izango da isolatuta ez izatea, Santa Barbarako eraikinean landutako alderdiak finkatzea eta hurrengo urteetarako hizkuntza normalkuntzako aurrerapausoez jabetzea. Azken bi urte hauetan EUSLE dinamika eraman dute aurrera maila honeta ikasleek, eta ikasturte honetan barne gogoeta bat egitekotan gaude egitasmoaren nondik norakoak zehazteko. DBH 4. mailako ikasleak, aldiz, Iturriaga eraikineri igarotzerakoan, jorratu egin beharko dituzte bertako ohiturak eta aurretik landutako hizkuntza normalkuntza bidea, kontuan izanda ikasle batzuentzat ikastetxean igaroko duten azken urtea izango dela. Ahal izanez gero saiatu behar dugu 4. mailako ikasleak eta Batxilergokoak elkarren artean harremanetan jartzea hainbat dinamikan ikasturte guztian zehar.</p> <p>Batxilergoko 1. mailako ikasleentzat egoera berria izango da kasu batzuetan (Urnietao Egape, Astigarragako Arantzazuko Ama edo dena delakotik etorritako ikasleak baitira), eta kasu gehienetan aurreko urteko jarraipena izango da, baina kontuan izanda ikasle berriekin topatuko direla, eta askotan ikasgelaren partaideden antolaketa berria izango dela, beraz, egoera hau kontuan izanda adin honetako hizkuntza-normalkuntza plangintza bat osatu beharko da, HITZEN AHAIREA (Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda) moduko saioak antolatuz ikasturtean zehar. 2. Batxilergoko ikasleen egoera berezia da neurri batean, hau da, ikastetxean igaroko duten azken urte baita, eta apirilatik aurrera Unibertsitateko hautaprobak direla medio beraiekin eta beraiengandik ikasteko ikasturte erdia soilik izango dugu. Komenigarria litzateke ikasmaila hau aprobetxatzea eredu gisa transmisio lana egiteko 1. mailako batxilergoko ikasleekin batera DBHko ikasleekin, neurri handiago batean 1 eta 2. mailan, eta lankide gisa 3. eta 4. mailako ikasleekin.</p> <p>Irakasleen metodologia eta interakzio didaktikoari dagokionez, ikasleen arteko euskarazko interakzio didaktikoa eta komunikazio aberatsa bideratzen duen metodologia ez dago guztiz adostuta. Irakasle batzuek, era pertsonalean, haien arloetan ikasleei ahoz jarduteko aukera zabaltzen diete, baina irakasleen artean ez dago irizpide komunik. Komunikazio gaitasuna dela eta, irakasle guztiek badute EGA edo HE2. Irakasle gehienek badute euskaraz hitz egiteko eta klaseak euskaraz emateko erraztasuna, era formal zein informalean. Irakasle batzuek hitanoa erabiltzeko gaitasuna daukate, baina normalean ez dute erabiltzen. Ikastetxearen tokiko euskalkia ezagutzen dute, baina gehienetan batuerara jotzen dute. Irakasleen Normalkuntza prestakuntzak badu lekua ikastetxeko prestakuntza-planetan, normalean ikasturte hasieran antolatzen dira normalkuntzarekin lotutako prestakuntza-saioak. Irakasleen arteko interakzioan nonahi eta ia beti euskaraz izaten da, batzuetan euskalkia eta hitanoa erabiltzen dute. Irakasle gehienek errespetatzen dituzte normalizazioaren inguruan hartutako erabakiak eta konpromisoak. Irakasle guztien ardura da ikasleek euren artean euskaraz egitea, eta horren aldeko hanbat jokabide dituzte, irakasle batzuek bakarrik hartzen dute ardura ikasleek euren artean euskaraz egiten ezazaten. Irakasle batzuek argi dute haiek direla ikasleen eredu eta sustatzaile euskararen motibazioan eta girotze arloetan. Zuzendaritzak eta mintegi bakoitzak kontuan izan behar dute irakasleen praktikako lankideek ziurtatu beharko dutela euskaraz badakitela, eta gure hizkuntza irizpideen berri eman beharko zaiela etortzen diren lehendabiziko egunean.</p> <p>Administrazio eta zerbitzuetako langileak direla eta, langile ia guztiak gai dira euskaraz aritzeko, ahoz zein idatziz, eta euskara dute ohiko erabilera kasu gehienetan, salbuespenak salbu (atal honen bukaeran zehaztuko ditugunak). Azken urteotan ez da prestakuntzaren beharrik edota eskaerarik izan, beraz, ez da antolatuta. Gai hau berrikusi beharko da helburuen atalean. Partaidetza eta inplikazioan, normalkuntza batzordean badago ordezkari bat, baina haien arteko komunikazioa hobetu beharreko atal bat da, bertan lantzen diren gaiak ezagutu eta jorratu ahal izateko administrazio eta zerbitzuetako langile guztien artean. Motibazio eta girotzerakoan, euskararekiko jarreta positiboa dute orokorrean, eta honen alde zerbait egiteko prest daude, baina maila</p>

<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>personaleko jarrerak dira, euskararekiko jarrera anitzak dituzte. Lehen aipatutako sailbuespenen artean, azpikontratutako garbitzaileen kidegoari dagokionez, badaude zenbait langile euskaraz ez dakitenak, eta gainera, euskararekiko jarrera ez oso positiboa dutenak. Batzuetan egoera deserrosoak sortzen dira. Helburuen atalean azpimarratzeko kontua izango da honako hau.</p> <p>Gurasoen atalean, ikastetxeko familia-tipologia aintzat hartzen da harreman-hizkuntzan. Ikastetxeak, familia-tipologia kontuan, harreman-irizpideak zehaztuta eta adostuta ditu eta Hizkuntza-Proektuan jasota daude. Harremanetan euskarari ematen zaio lehentasuna, baina egunerokotasunean, batzuetan kosta egiten da guztiz betetzea; beraz, gainean ibili behar dugu irizpideak zuzen bete daitezzen. Komunikazio-gaitasuna eta prestakuntzan, eskolak gurasoei euskaraz aritzeko erraztasunak ematen dizkie, eta behar izanez gero prestakuntzarako laguntza eskaini ere bai (euskararen gainean zein euskararen erabileraren ingurukoak). Motibazio eta girote aldetik, bada zenbait gurasoren artean euskararen aldeko normalakuntzaren aldeko motibazioa eta giroa, Gurasoen Euskara Batzorde eraginkorra osatuta dago azken urte hauetan; hala ere, batzuetan, guraso bakar batzuek bakarrik dituzte motibazio eta gogoia antolatzen diren ekimenetarako. Aipatutako guraso horietako batzuek beren seme-alabek euskarazko ekimenetan parte hartzea sustatzen dute, baina da guraso guztien jarrera orokorra. Azken urte hauetan zailtasunak daude Euskara Batzordean partaideak lortzeko, DBH lehen mailetako ordezkariak ziurtatu eta finkatu behar dira transmisioa ziurtatzeko.</p>
<p>Gelaz kanpoko jarduerak</p>	<p>Aurreko Brankarekin alderatuta berdintsu gelditu da euskararen presentzia/ezagutzan (-0,03); erabileran, aldiz, igoera izan da (+7,52). Brankak aurreikusitako erabilerarekin alderatuta (- 21,57), hau da, espero zitekeen erabilera baino askoz ere txikiaagoa izan da.</p> <p>Datuak datu, eta azken lau urteetan egindako lana kontuan izanda, emaitza kaxkarrak izan dira. Hau dela eta, ondorengo atalean zehaztuko ditugu landu beharreko alderdiak.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Aurreko Brankan bezala atal honetan hutsunea izaten jarraitzen dugu, eta atal hau zehatzago landu beharko dugu datozen lau urtetan. Esan beharra orain dela lau urte bezala, oraingoan ere azaldutako datuak era arbitrarioan jasotako datuak direla, bai eskola eragilea denean (jolalsaldiak, jantokia, sarrera-irteerak, autobusa, jaiak, ospakizunak, irteerak, egonaldiak, eskola-kirola, aisialdiak eta bestelakoak), baita herriko elkarteak edota erakundeak eragile direnean (jaiak, ospakizunak, irteerak-egonaldiak, udalekuak, aisia, kirola, erakundeen esku-hartzea, musika eta bestelakoak). Udalerriaren datuak, aldiz, aurreko proiektuan ez bezala, datua eguneratuak izan dira EUSTATen emaitzen arabera.</p> <p>Beraz, datuak era arbitrarioan jaso beharrean (ahoz ahoko transmisioa zuzendaritza, idazkaritza, mintegi arduradunak...), hurrengo Branka egin aurretik datu objektiboak jartzen ahalagindu behar dugu, zaila izan arren, ez baititugu adierazle aproposak atal horiek lantzeko. Alegia, 2022-26 ikasturteetan atal guztietako arduradunekin hitz egin beharra dago urtez urte, eta bakoitzak bere atalean datu objektiboak bildu beharko ditu, eta 2025-26ko Brankarako datu horiek erabiliko ditugu ahal izanez gero.</p> <p>Eskola eragile den guneetan horrela banatuta dago hausnarketa. Jolalsaldietan, sarrera-irteeretan, jaiak eta ospakizunetan, txangoetan eta aisialdietan, ikasleek euren artean eta irakasleekin euskaraz egiten dute (% 60); beste batzuetan ikasleek beraien artean ez dute orokorrean euskaraz egiten, baina irakasleen aurrean bai (%30); eta azkenik, badaude ikasleak euren artean beti gaztelaniaz ari direnak, eta irakasleekin ere bai (%10). Aipatutako datu hauek ikasmaila guztien batez bestekoak dira, baina kontuan izan behar dira DBH lehen mailetan datuak okerragoak direla, eta Batxilergoko mailatan datuan hobekak direla.</p> <p>Atal honetan, euskara bera sustatzeko ekintza batzuk egiteko beharra sumatzen da Ikasleen Euskara Batzordearen bidez. Irteera eta txangoetan euskarari ematen zaio lehentasuna, baina zenbait ekimenetan euskararen presentzia ez dago bermatuta, eta ez dago inongo protokolo-irizpiderik honi aurre egiteko. Jangelan, jantokiko langile guztiek edo gehienek badakite euskaraz. Ikasle batzuek euskaraz egiten dute euren artean eta jangelako hezitzaileekin eta begiraleekin, baina beste ikasle batzuek ez haien artean, ezta hezitzaile-begiraleekin ere, ez dute euskaraz egiten. Jantokian euskaraz eragiteko esku hartze plangintzarik ez dago, eta horren beharra badago, atal honetan pandemiak asko aldatu du jangelaren egoera, azken bi urte hauetan lanaldi jarraia izan baita, eta honek eragin handia izan du ikasle eta monitoreen kopuruetan.</p> <p>Elkarteak eta erakundeak eraginda antolatzen diren jaiak, irteerak, egonaldiak, udalekuak, aisiak, kirolak... eta abarretan, euskarari ematen zaio lehentasuna, baina batzuetan euskararen presentzia ez dago bermatua, eta ez dago inongo protokolo-irizpiderik honi aurre egiteko.</p>
<p>Bestelako tresnak</p>	<p>Mintzagramak direla eta, ikusi izan dugu aurreko urteetan ez dela zertan lau urtez behin erabiltzeko tresna. Esate baterako, DBH 3. mailan EKI proiektuaren barnean mintzagramak egiten dira ikasgela guztietan lehenengo ebaluazioan soziolinguistika atala lantzerakoan, EUSLE proiektuaren sarrera gisa. Hala ere, jakinen gainean gaude mintzagramak nahi dugunean erabili ditzakegula gure beharren arabera.</p>
<p>Eremuen lehentasunen inguruko hausnarketa</p>	<p>Proiektuaren justifikazioan aipatu dugun bezala, jakin badakigu esparru guztiek ez dutela pisu eta eragin-ahalmen bera normalizazio-prozesuan. Zenbait eragin-esparruk garrantzi handiagoa dute normalizazio-prozesuan. Funtsezkoa da horiek identifikatu eta optimizatzen saiatzea. Hori horrela, ez da ahaztu behar eragin-esparru guztiak elkarreraginean lotuta daudela. Eragin-esparru batean eraginez, esparru horretan ez ezik, besteetan ere eragiten baita, zeharka bada ere. Gauzak horrela, azaletik bada ere, horra hor landu beharreko zenbait atal eremu bakoitzean.</p> <p>Eremu instituzionalean lorten adierazleak eta emaitzak nahiko altuak izan dira. Hala ere, eremu honen jarraipena egiten segitu behar dugu, batez ere gurasoei bidaltzen zaizkien komunikazioetan. Atal berriak lantzerakoan, aurreko proiektuan jarri genuen bezala, HNAT arduraduna izendatzeko irizpideak finkatzeko beharra ikusten dugu, eta beste ikastetxeekin ditugun harremanak euskaraz izan arren, jokaera-irizpideak adosteko eta eragile izateko estrategiak landu beharko ditugu.</p> <p>Eskola kideei dagokionez, eremu hau nabarmenduko nuke bereziki lehentasuna eta garrantzi handiago emanez. Eremu honetan, IKASLEEN atala da motibazioan, jakintza mailan eta erabileran jorratu beharreko arloak. IRAKASLEEI dagokionez, Normalkuntza Plana adostuta eta onartuta izan arren, partaidetza eta inplikazio arloak jorratu behar ditugu. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK ere jorratu beharreko atala da, batez ere komunikazio gaitasunerako prestakuntzari dagokiona, eta azpikontratutako langileen euskararen jakintza maila. GURASOAK direla eta, partaidetza eta motibazio-girotea dira landu beharreko atalak.</p>

Eremuen lehentasunen inguruko hausnarketa

Gelaz kanpoko jardueretan, aurreko proiektuan jarri genuen bezala, datuen objektibotasunari emango diogu garrantzia datoen urteetan, baita ikastetxearen hizkuntza irizpideak lantzerakoan protokolo antzeko bat osatzea.

4 URTEKO PROIEKTUA

1. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDU ETA ERABILERA KOHERENTEAK

1.1. Ikastetxearen antolamendua

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Hizkuntza Proiektua berrikustea eta behar diren aldaketak egitea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
Hizkuntza Normalkuntza Plangintzaren berri Eskola Kontseiluan eta beste parte hartze eta erabakitze organoetan ematea: urteko plangintza, proiektu berria, urtean zehar iristen den informazioa...	Zuzendaritza, Eskola kontseilua edo Guraso elkarte, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak %tan, % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✗	✗	✗
Irakasle, ikasle eta langileei jakinarazpenak euskaraz egitea eta gurasoei araututako hizkuntza irizpideek dioten moduan.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, % 90	Asebetetzearen balorazioa, 9	✓	✓	✓	✓
Ikastetxearen ordenagailu interfazeak euskaraz izatea.	Zuzendaritza, HNAT, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓
Ikastetxean erabiltzen diren dokumentu administratiboetan euskara lehenestea eta hizkuntza bakarra izatea hala eskatzen denean.	Zuzendaritza, Idazkaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %90	Asebetetzearen balorazioa, 9	✓	✓	✓	✓
Zuzendaritzak berak Hizkuntza Normalkuntza Plangintza bultzatzea, HNBan parte hartuz.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak %tan, % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓
HNATaren eta Batzordekideen berriztapenak definituta izatea eta aldaketak progresiboki egitea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %60	Asebetetzearen balorazioa, 6	✗	✓	✓	✗

1.2. Normalizazioa sustatzeko erabakiak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Hizkuntza Normalkuntza Plangintza Hizkuntza Proiektuaren oinarrietako bat izanik, ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren zutabetako bat izatea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)		Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
HNP aurrera eramateko aurrekontuetan beharrezko baliabide ekonomikoak ziurtatzea eta diru partida jasotzea.	Zuzendaritza, Eskola kontseilua edo Guraso elkarte, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

1.3. Kanpoko eragileekin harremanetarako hizkuntza-irizpideak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Beste ikastetxeekin, Berritzegunearekin, hezkuntza administrazioarekin eta instituzioekin komunikazio-harremanak euskaraz izatea eta elkarteeekin, enpresekin eta hornitzaileekin euskara lehenestea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

1.4. Hizkuntza-irizpideak ikastetxearen eremu digitalean

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikastetxeen arteko jardueretan eta komunikabide zein herriko euskara elkarteeekin harreman-komunikazioa euskaraz izatea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓

2. ESKOLAKO KIDEAK ETA EREMU DIDAKTIKO-METODOLOGIKOA

2.1 Ikasleak: motibazioa, jarrerak, portaerak eta emozioak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikasleen euskararekiko motibazioa lantzea eta jarrera egokia izatea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

2.2 Ikasleak: komunikaziorako kompetentzia.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikasleen euskarazko komunikazio gaitasuna %5 hobetzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...)	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓

2.3 Ikasleak: erabilera.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Azken urteetako ikasleen arteko euskararen erabilaren jaitsiera etetea, eta ondoren % 5 igotzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

2.4 Ikasleak: euskal kulturaren transmisioa.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikasleen artean euskal kulturarekiko (zinea, komunikabideak, literatura, musika, artea...) interesa eta kontsumoa handitzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...)	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓

2.5 Irakasleak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Irakasle guztion ardura izatea ikasleek euren artean euskaraz egin dezaten, eta horren alde antzeko jokabidea adostea ikastetxeke edozein eremutan.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Hausnarketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓
Ikasleen arteko euskarazko interakzio didaktikoa eta komunikazio aberatsa bideratuko duen metodologia adostea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓
Irakasleen euskara komunikazio gaitasuna %5 hobetzea	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Hizkuntza Normalkuntza Plangintzaren eta ikastetxeko hizkuntza irizpideen berri ematea harrera egunean.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak %tan, % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓
Irakasleen artean euskal kultura eta euskararen erabilera sustatzeko, motibazio eta sentsibilizazio saioak prestatzea	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓
Irakasle on artean HNPko arduradunak txandakatzen joatea, eta horretarako irizpideak finkatzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✗	✓	✓	✗

2.6 Administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei prestakuntza ikastaroak eskeintzea, euskararen gaineko gaietan eragile aktibo izan daitezuten. Behar edota nahi izanez gero, hizkuntzaren komunikazioa hobetzeko ikastaroak eskeintzea.	Zuzendaritza, Idazkaritza, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %60	Asebetetzearen balorazioa, 6	✓	✓	✓	✓
Administrari eta zerbitzuetako langile bat partaide izatea Hizkuntza Normalkuntza Batzordean.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Besteren bat (ikastetxek kanpoko eragile bat...)	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak %tan, % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓
Administrazio eta zerbitzuetako langile guztiek euskaraz komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea eta euskara erabiltzea lan esparruetan.	Zuzendaritza, Idazkaritza, HNAT	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓

3. FAMILIAK ETA KOMUNITATEA

3.1. Familiak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Gurasoei ikastetxeko hizkuntza irizpideen berri ematea harrera eguneko bileran.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓
Gurasoentzat euskararekiko motibazio-girotze jarduerak eskaintzea, eta beren seme-alabak euskarazko ekimenetan parte hartzea bultzatzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
Ikastetxe eta gurasoen arteko harreman hizkuntza euskara lehenestea, eta gurasoei argi jakinaraztea horrela egingo dela.	Zuzendaritza, Eskola kontseilua edo Guraso elkarte, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak %tan, % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓
Euskara Batzordeko partaidetza gehitzea proportzionaliki ikasmaita guztietan, edota eraikin guztietan ordezkariaren bat izatea gutxienez.	Eskola kontseilua edo Guraso elkarte, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %70	Asebetetzearen balorazioa, 7	✓	✓	✓	✓

3.2. Komunitatea, eskolaz kanpoko jarduerak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Udalarekin daukagun elkarlana jarraitzea eta sendotzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, % 80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
Ikastetxeak antolatutako gelaz kanpoko jardueretan ikasleen arteko euskararen erabilera % 5 handitzea.	Zuzendaritza, Eskola kontseilua edo Guraso elkarte, HNAT, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
Kanpoko eragileek antolatzen dituzten ekintzetan euskararen erabilera %5 igotzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓
Herriko ikastetxeekin eta beste zenbait kultur eta kirol elkarteekin antolatzen diren ekintzak euskaraz sustatzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak %tan, % 100	Asebetetzearen balorazioa, 10	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikastetxetik kanpo egingo diren irteera guztiak euskaraz izatea, bai antolatzea, baita garatzea ere. Euskara izan dadin komunikazio-hizkuntza (Hizkuntza Proiektuaren irizpideen arabera).	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxetz kanpoko eragile bat...)	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Betetze maila ehunekotan neurtzen dutenak % tan, %80	Asebetetzearen balorazioa, 8	✓	✓	✓	✓